

Suburbia berrien utopia. Metropoliaren kontra

Laburpena: Gaur ez dela «suburbiarik», ezta utopia baliagarrikerik ere onartzen dute askok: mugak bizi ditugu. Metropolizazio-efektuak lurraldea muga orokor bihurtu du eta hiri jarraituak definitzen ditu bizi ditugun lekuak, metropoli globala alegia. Euskal Hiria deiturikoa gurean.

Hitz-gakoak: metropolia, suburbia, Euskal Hiria, lurraldea, utopia.

Abstract: There is a belief that nowadays, "suburb" nor a possible utopia exists: we live the limits. The effects of the metropolis on the territory have drawn a general limit. Thus, the territory is seen as a continuum of a city, so to say, a global metropolis called the Basque City.

Key words: metropolis, suburb, the Basque Country, territory, utopia.



Ibon Salaberria
Arkitektoa eta EHUko irakaslea

Bidaltze data: 2016-06-05
Onartze data: 2017-01-31

Euskal Hiri beretik sortu ginen?

Bernardo Atxagak Euskal Hiria kontzeptua «bota» zuenetik, irakurketa, erabilera aldrebes eta kritika zehatz batzuk ere jaso ditu. Atxaga sarri itzuli da Euskal Hiriak har zitzakeen ibilbide kontzeptual berrien inguruan hausnartzera, baina berak izendatzen dituen «iraultzaile intermitenteek» ez dute kontzeptu batek berezko duen memoria onartu, eta haien kritika sinplifikatueta darraite.

Atxagak, terminoa utopia berri bat eraikitzeke tresna bezala ulertzen du. Sorturiko kritika eta eztabaida, ordea, Euskal Hiria eta neo-konserbadoreek bultzatutako metropolizazio-prozesuak gauza bera balira bezala identifikatzean kokatzen dira.

Bestalde, Euskal Hiri-ko suak berpizteko, gaur egun nonahi saltzen den berrikuntza sozialak aukera egokia topatzen du berrikuspen produktibista hutsal bat bilakatzeko Euskal Hiria, bere memoriaren kalterako.

Horrekin batera datoz orokorrean hustuta datozen partaidetza-aldarri eta esloganak, politika askoren marketin-estrategia estetizatzaile bezala. Agertzen diren neo-kontzeptu berriak, adibidez Hiri-erregio, metropolizazioaren eufemismoak besterik ez dira. Eta metropolizazioak hiri, herri eta lurralde zatiak batzen ditu etenik gabeko euskarri berriak bailiran. Handitasunak emango dio lurralde zatiari bisibilizazioa mundu globalizatuan.

Edward W. Sojak (2000) azaltzen dizkigu Estatu Batuetan 90eko hamarkadatik aurrera sorturiko metropolizazio-efektuei eginiko erresistentzia eta kritikak. Feminismoak,

queer teoriak, analisi postmarxistak eta kritika postkolonialak agerian uzten dituzte, Sojak azaldu bezala, metropolizazioen zulo beltzak, eskusioak, injustizia espaziala eta arrazismo moduak. Bai han baita hemen ere, partaidetza eta justizia espaziala aldarrikatzen dituzten irrupziozko prozesuak agertzen dira. Hiri-erregioak (edo post-metropoliak) aukera berri bezala agertu arren, ordea, berriz ere kapitalaren espazio berrien paisaia bihurtzeko bidean daude.

Metropolia suburbiaren kontra

Metropoli terminoaren etimologiak argitu ditzake non diren prozesu honen azpiestrategiak. Giorgio Agambenek 2006an Venezian esandako hitzadian gogorarazi bezala, «Metropoli» hitza Greziatik dator. Grekoek, Metropoli hitza ama-hiria izendatzeko erabiltzen zuten, ama-hiriak eta haren koloniak osatzen zuten Metropolia. Agambenek gogorarazten duen bezala, Greziatik datorren esanahia sare urbano homegeneo baten kontrakoa da, hots, ama-hiriak dominazio bat ezartzen du kolonizatutako beste lurralde zatien gain. Gaurko terminoaren erabilerak intentzio berberak izan ditzake, Metropolia kontrol-dispositibo sare bat besterik ez izatea, nahiz eta teoria diskursiboek bestelako agertoki distiratsuek eskaini.

Batzuetan Metropoli, besteetan Euskal Hiri eta azken aldian Euskal Erregio. Hitzek politika jakin bat sortzen dute eta horien menpe marrazten dira lurralde-plangintzak hiri-berrikuntza eta bestelako foroetatik onartzen diren begirada teknifikatuak direla medio, mamuen antzera, lurraldea airetik soilik begiraturaz, lurretik, sasiz beteriko larretatik, ikuspegiak ez baitie uzten metropoliaren osotasuna ikusten.

Langdon Winner (1983) galdera garrantzitsu bati erantzuna ematen saiatu zen bere *Do Artifacts Have Politics* testu ezagunean. Winner-en tesiak dio edozein artefaktu edota azpiegitura teknologikok beti osagai politikoa duela, nolabait, edozein asmakizun teknologiko agerian ez dagoen helburu konkretu baten norabidean dagoela, alegia. Gure mundua ordenatzeko moduak dira teknologiak, egunerokotasunean txertatzen diren asmakizun eta sistemok giza jarrerak modu ezberdin zein zehatzen menpe ordenatzeko aukera dute.

Ohar bezala uler daitekeen testuak teknologiak fede bihurtzarekin duen erlazioa azaltzen du, betiere, kapitalaren produkzio eta eraldaketa guztiei men egingo dien fedea alegia. Helburu erreala ezkutatzeko, prozesu berri horiek hiri-berrikuntza, gizarte-berrikuntza edo bestelako izendapen potolo gisa agertzen zaizkigu. Azken hamarkadetak azpiegitura fisikoen eraikuntzek etorkizunerako mezu fededun baten forma hartzen dute ikusezina diren beste azpiegituren menpe.

Fede idealizatu horiek jarri dituzte lehen urratsak, benetako Euskal Hiria utopia sortzetik baino, Euskal Metropolitik gertuago egoteko. Euskal Hiri metropolizazio-prozesuan dagoela islatzen dute gaur gure lurralde zatiek distopia baten errepresentazio errepikagarri bezala. Eta metropolietan, dakigunez, denborak, abiadurak eta ekonomiak ematen dizkiote forma eta mugak paisaia berriari (Soja, 2000), Bilbok ongi dakien kontsumo-iruditeria berri eta inpostatu baten eraiketaren bitartez. Atzerabiderik gabeko (eta atzerako begiradarik gabeko) azal hutsalez eraikitako bizi-euskarri «progresistak». Euskal Hiri metropolizatu baterantz garamatzaten hausnarketek ezinbestean onartzen dituzte hiperkonektibitatea, kontsumorako diztiren efektua eta azpiegitura teknologiko berriak itsu-itsuan, gure lurraldetik ahalik eta azkarren, ahalik eta despolitizatuen pasa gaitezen. Suburbiarik gabe, ezberdintasunak ezabatuta, Metropolia globala.

Arkitekto Tenteak kapitalaren menpe

Globalizazioaren produkzio motak Hiri Generikoa (Koolhaas, 1995) sortzen du. Koolhaas-ek hiri garaikidea aireportu batekin alderatzen du, identitateak desagertzen diren «ez-leku» (Augé, 1992). Mugikortasun sutsuak eta abiadurak espazio kulturalak ezabatzen dituzte homogeneizazioaren joko-taula berrian. Lekuek ez dute izendapenik metropoliaren izaera gizajalearen eszena berrian. Identitate-galera, testuingurua, memoria eta lekuekiko jakintza eta pertenezia beharren desagertzea dakar gaurkotasanak.

Horretaz arduratuta, urbanizazio kapitalistak iruditeria berriak sortu eta txertatzen dizkigu han-hemenka modu narkotiko lasaian. Kapitalaren hegemoniak hiriak bere forma eta beharren arabera moldatzen ditu. Esanahiez hustutako termino «gasifikatu»ek ematen diote behin eta berriz urbanizazio modu dominatzaileari zentzua.

Garai modernoak azaldu zigun arkitekto-figura tente, maskulino eta heroikoa, inongo kritikarik gabeko ariketa etengabea, estatu forma ezberdinen instrumentu eraginkorra izan zen. Modernitatearen paradigma, Le Corbusier-ek «asmatutako» Modulor⁵ legeetan

agertzen zaigun «gizon libre»aren irudia da. Neurri eta lege unibertsalen bilaketan, gizonezko baten gorputzak eguneroko funtzioetan beharrezko dituen arkitektura eta objektuen neurri estandarizatuak ezartzen ditu arkitekto sutzarrak. Zer gorputz irudikatzen du Le Corbusier-en Modulor eskemak? Gizonezko europar estandarizatu. Horren harian, Beatriz Colominak (2010) dio emakumeak arkitektura modernoaren mamuak direla, beti presente, ezinbesteko baina bitxiki ikusezin. Marko horretan garatu ziren modernitateak garatutako distopia guztiak, sistema patriarkaletik abiatuta, eliteak eta kapitalaren garapenak sustaturiko mekanismo distiratsu mediatikoak.

Gizonezko subjektu heroikoa eman digu ordainetan postmodernitateak bere azkenetan, XX. mendeko gerra arteko garaian «saldutako» figura berbera. 60-70eko hamarkadetan zalantzan jarri zen eredia indartsuago azaldu da XXI. mendearen hasiera honetan.

Manfredo Tafuri (1972) izan zen arkitekturaren praktikaren eta ideologiaren arteko lanketan modernitateko abanguardien paper «aliatua» garbien kritikatu zuena. Modernitatean garatu ziren arkitekturak estatuen propaganda- eta kontrol-mekanismo bezala agertu zituen. Gatazka eta ezberdintasuna ezabatzeko dispositibo ezin hobea.

Postmodernitateak gaurdaino ezin hobeto garatu diren mekanismoek ohartzen gaitu Tafuri-k, hots, muturreko kapitalismoak edozein forma edo mugimendu erradikalena bereganatu eta merkantilizatzeko duen kapazitateaz, alegia. Horrekin batera, Tafuri-k arkitekturari egotzi dio hiriaren eta produkzio-egituren arteko gatazkan amore eman izana. Momentu horretan, arkitektura-praktikak diziplina autonomo bezala egiten du aurrera etengabeko teoria autorreferentzialak garatuz gaurdaino.

Eta bitartean, estatuen makinarietako arkitekturaren praktika araudi eta kontrol zorrotzagoak ezartzeko erabiliko dute mekanismo efizienteen bitartez.

Arkitektura emantzipatuaren utopia

Jaques Rancier-ek (2008) deskribatzen duen bezala, emantzipazioak ez du lekurik politika erreformisten bidetik. Emantzipazioak praktikan galdutako erlazioaren birjabetzea bilatu behar du.

Rancier-ek emantzipazio kontzeptuaren bilakaera azaltzen digu, lehen momentuan hartu zuen esanahitik — minorizatutako edo dominatutako egoera batetik irtetea — gaur egun dituen ibilbide kontzeptualak azaldu arte. Marx-ek azaldutako gizarte-unitateen hausturatik, emantzipazioa, komunitateek galdutako ondasun baten birjabetze global bezala ager daiteke soilik. Momentu horretatik aurrera, zientziaren promesak hartuko du alegiazko emantzipazio baten irudia, sekula ailegatuko ez den askapenaren isla, alegia.

Zientziak askatze-ilusioa sorrarazten du, baina, era berean, Bruno Latour-ek azpimarratzen duen moduan, «modernitatea, politikoki arriskutsua den helburua da». «Progres»aren ilusioak zabalduko ideien artean dago, gizakia, planeta kontrolatu eta egonkortzeko kapaz izango



Irudia ~ Errauskailua eta Ertzaintza.
Egilea ~ Ibon Salaberria.

dela. Horrekin bat, zientzia- eta teknologia-garapenek emantzipazio eta antropozentrismoa sustatu dute. Gatazka edo egoera kritikoen aurrean gaiak teknifikatu edo zientifikatzeak sortzen ditu fede berriak eta, ondorioz, ageriko despolitizazio-prozesuak.

Arkitekturaren, besteak beste, eraikin ekologikoak «datu-erakin monitorizatu» bihurtu dira. Ondorio garbia du: ekologia guztiak datu eta teknozientzia bihurtzea; haren esanahia hustu eta «aditu»en esku uztea horren inguruko eztabaida gidatua, alegia. Era berean, agintari eta haien «aditu» aliatuek bakarrik dute zilegitasuna datu errealak aztertu eta erabakiak hartzeko, azken momentuan, ilusiozko gizarte emantzipatu batekin partekatzeke: opio berri baten sorrera.

Erik Swyngedouw-k dio jasangarritasun bezala mozorrotutako planifikazio moduak direla herriaren opio berriak. *¡La naturaleza no existe! La sostenibilidad como síntoma de una planificación despolitizada* izenburupean, naturaren fetixizazio-prozesua azaltzen du, fantasiaz eta desioz erakutsi zaigun natura kontsumorako baliabide bezala, eta, aldi berean, natura ordenatu eta orekatu baten ilusioa salduz. Gatazka ekologikoa estaltzera datorren estrategia dela dio Swyngedouw-k bere lanean, eta, ondorioz, «Natura»ren kontzeptua bera gaitzeste proposatzen du. Beste alde batetik, kapitalismoaren menpe diren estatuen politikak, errealitatea ulertzeko gaitasunik gabe, gatazka ekologikoak, gizakiaren jarraipenerako mehatxu diren mezua zabaltzen dute. Oraindik ere, kapitalaren menpeko demokraziek diote zientzia eta garapena izango direla gizakiaren salbazioa.

Naturaren inguruko diskurtsoak, jasangarritasuna eta arazoaren teknifikazioak dira opio berriak, despolitizazioarako dispositibo eraginkor ezin hobekak. Ekologiaren eskala guztiak (arkitekturaren bezala) mahai gainean jartzean, zientzia eta datu hutsaletatik haratago dauden «pentsamendu-produkzio» berriak agertzen dira benetako eztabaida sustatu ahal izateko. Ordura arte, arkitektura eta ekologia zientzia-laborategi itxietan soilik ernalduko dira. Onartua dago — datuzaleen artean ere — eraikuntza dela, giza aktibitate bezala, energia eta baliabide gehien ustiatzen duena. Arkitekturak planifikazio, kontrol eta arau geometrikoen kontrol-ariketen zurrumbiloan sartuta jarraitzen duen bitartean, botereek objektu eraginkor bezala erabiliko dute, instituzio diziplinarioek arautzen dituzten burokrazia modu guztiei men eginez.

Bestalde, jasangarritasuna eta ekologia izan ziren modu berean, orain, parte hartzea bihurtu da bizi dugun mende hasierako opio berria. Emantzipazio zabal baten eremu bezala uler daitekeena, era berean despolitiza daiteke merkatu-hiriaren kaptazio makinerien bitartez. Positibismo berriek partaidetzaren mozorroa erraz jantziko dute.

Demokrazia parte-hartzaile izendatzen diren erakunde batzuek bultzaturiko prozesu askok politika publikoaren gaineko erabakien legitimazioa besterik ez dute izan helburu. Partaidetzak, bere zentzu zabalean ulerturik, komunitate-esperientzia berreskuratzeko ezinbesteko tresna bihurtu beharko balu, espazio autonomo eta komunitate antolatuen sareak lirarteke erakundeek indartu beharrekoak, esperientziak instituzionalizatzeko ilusioan

eror ez daitezzen. Gune ezberdin horien arteko espazio eta momentuak dira, arkitekturak bere azken garaiko «profesionalizazio» zientifikatutik aldenduz, praktikaren emantzipazioa gauzatzeko duen aukera ezinbestekoa.

Hala ere, Ramón Fernández Durán-ek (2011) zioen moduan, kapitalismo globalaren porrota ate joka dugu. Zibilizazio industrialaren kolapsoa 2030. urterako dago aurreikusia mugimendu ekologisten arabera. Atzerabiderik gabeko agertokian, erregai fosilen gainbeheraren aitortzak kapitalismo globalizatuaren lehertzea ekarriko du. Ondorioak progresiboki nabariko dira bizi ditugun espazio eta egunerokotasunean. Emantzipazio-perspektibak aldarrikatzen zituen Durán-ek, energiaren kontsumo-ahalmenaren gainbehera progresiboa datorren bitartean. Politika-fikzio ariketa dirudienak epe ertain batetan irudi erreal eta gordin baten gorputza hartuko du eta ziurgabetasuna izango da nagusi. Gauzen eta espazioen finkotasunik ezak, ziurgabetasun eta moldakortasunak dekonstrukzioaren berrikuspen sakon batetik azterturiko lanketa izan dezake bidelagun:

80ko hamarkadan Jacques Derridak garatutako «dekonstrukzio» kontzeptuak harrera zabala izan zuen garaiko arkitektoen artean. Derridak, batez ere, Peter Eisenman-ekin egin zituen elkarlanean saiakerak. Hala ere, elkarlan hura ezerezean geratu zen arkitektoaren formalismo beharragatik. Jaques Derridak berak azkenean Eisenmani idatzitako gutunak agerian utzi zuen arkitekturaren formalismotik haratago Eisenmanek ez zuela interes nabaririk dekonstrukzioaren benetako oinarrian, hots, arkitekturaren potentzia politikoan.

Derridak arkitekturari eskaintzen dion sublimetasunaren gaitasuna inoiz gauzatu den kezka agerian utz daiteke. Esfera artistikoan murgildutako abanguardiek, objektuen eta errepresentazio hutsen mundutik eta esposizio kontzeptutik ihes egiteko —garaiko burgesiaren merkatu eta produkzio formatatik emantzipatzeko intentzioz— sublimetasuna erabili zuten. Arkitekturak ez digu erakutsi, ordea, dimentsio horietan mugitu izan denik, errepresentazioa eta etengabeko esposizioa baitira haren tresnak behin eta berriz.

Suburbia berrien bila

Dekonstrukzioaren ibilbideak etengabeko birpentsatze bat eskatuko luke, antagonismoen «irrepresentazio» eutsiezin baten moduan, hiria edota demokrazia, beti ailegatuko den zera izango dela onartzea. Horretarako, partaidetzamekanismo edo esperientziek erakusten dizkiguten formulazioak dira indartu beharrekoak, ez instituzioen estetizazio parte-hartzaileak.

Mumfordek aldarrikatu zuen hiriaren berrasmakizun guztiak utopia baten eraketa zutela lehen urrats. Idealizazio-mailara iristen denean, ordea, liturgia baten antzekotasuna hartzen duenean, hiriaren eta lurraldearen balioak erlijioen antzeko idealizaziotik osatzen dira eta, azken horien kasuan, ezinezko izango diren balioen eraikuntzak eta dominazio-formak agertzen dira. Azken finean, botere-praktikan oinarritzen diren estrategiak besterik ez baitira.

Utopia, beraz, idealizazio eta etika harrapaezinen eraikuntza bat baino gehiago, arkitektura berri baten lehen urrats bihurtu daiteke, hain zuzen, nostalgiarik gabe begiratuko genukeen larre horren barne eman beharreko lehen urratsa, arkitekturaren emantzipaziorantz bideratuko duen tresna, ibilbide ezberdin asko irekiko dituen toki agnostiko bat.

Ba al du formarik erresistentziaren arkitekturak? Beharbada arkitektura emantzipatu erreala ez luke forma finkorik aldarrikatuko, alderantziz, kaptatzeko ezina izango den arkitektura politikoa, proposamen iheskor zein moldakor, mugikor edota suntsitzaile bat, besterik ez.

Hor da Euskal Suburbien erronka, euskal hiri edo herri izatetik, hots, efektuen paisaia distiratsu eta nostalgiko izatetik, afektu partekatuen paisaia-sare bihurtzea alegia.

Metropoliaren argi itsugarrietatik urrun, eten eta dibertsitatez beteriko lurralde zati bezala, Euskal Suburbiek bestelako politika-praktikak beharko lituzkete, berriz ere ipurtargiek argituko dituzte erresistentzia-espazio txikien sare amaigabeak, komunitateak alegia, Didi Hüberman-ek (2009) maisuki deskribatu zuen paisaia.

Eta irudi-sare berri horrek komunitate pluralaren forma hartzen duen momentuan, orduan, berriz ere, Euskal Suburbia etengabeko dekonstrukziorako bidean jarriko dira. Azken finean, Derridak dioen bezala, arkitektura erreala komunitatearen beharrak barneratzen direnean azalduko baita.

///

Bibliografia

- Agamben, G. (2005): *Estado de Excepción*, Adriana Hidalgo, Buenos Aires.
- Augé, M. (1992): *Non-lieux. Introduction à une anthropologie de la surmodernité*, Edition du Seuil, Paris.
- Antich, X. (2013): *La Ciutat del Dissens. Espai comú i pluralitat*, CCCB, Barcelona.
- Colomina, B. (2010): *With or Without You: The Ghosts of Modern Architecture*, MOMA, New York.
- Derrida, J. (1999): *No escribo sin luz artificial*, Cuatro ediciones, Valladolid.
- Díaz Cuyás, J. (2008): «Visiones aéreas: Robertson, fantasmagorero y aeronauta», *Acto: Revista de pensamiento artístico contemporáneo*, 4, 84-123.
- Didi-Huberman, G. (2009): *Survivance des lucioles*, Les Éditions de Minuit, Paris.
- Mouffe, C. (1996): *Deconstruction and pragmatism*, Routledge, New York.
- Mumford, L. (1922): *The Story of Utopias*, Boni and Liveright, New York.
- Ranciere, J. (2008): *Le spectateur émancipé*, La Fabrique éditions, Paris.
- Soja, E. (2000): *Postmetropolis*, Blackwell publishing, Los Angeles.
- Tafuri, M.; Cacciari, M. eta Dal Co, F. (1972): *De la vanguardia a la Metropoli. Crítica radical a la arquitectura*, GG, Barcelona.